

BERRIZTARRA

2011ko URTARRILA



Rokodromoa prest

Urte berriarekin batera, Urzabal kaleko rokodromoa zabaldu du Udalak. Rokodromoaz gain, skate pista bat ere badu. Biak aterpeko kirol instalazioak dira eta osagarri modura, aldagelak, dutxak, bulegoa eta biltegia ere baditu lokalak. Urtarrilaren 23ra bitartean, herritarrek kirol azpiegitura berria eza-gutu eta probatzeko aukera izango dute.

udal

erabakiak

● Ohiko bilkura: urriak 14 octubre

Onartutakoa

- Tokiko Garapen agentearen kontratu-luzapena eskatzea INEMi.
- 2011ko ordenantza fiskalen eta tasen moldatzea.
- Zirkulazio antolamenduaren udal ordenantzako artikuluen aldaketa.
- Ebezez ebeko Laguntza Zerbitzuaren kontratazioa.

● Ohiko bilkura: azaroak 10 noviembre

* Faltan: Pili Sanz (EAJ).

Onartutakoa

- Udalaren kirol instalazioen araudi orokorra.
- Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.
- Oinarriko errenta aurreratzeko irizpideak.

● Ez-ohiko bilkura: azaroak 22 noviembre

Onartutakoa

- 2011rako aurrekontua. Ados (5 EAJ), kontra (1 EA), abstentzioak 5 (1 PSE eta Karmen Amezua, Gorka Camara, Aitor Zumelabe eta Aizpea Macarro).
- Berrizko hiltegi instalazio berrietarako sarbiderako derrigorrezko diren lursailen lagapen espedientearen tramiteak hastea.
- 2011ko inbertsio plana.

● Ohiko bilkura: abenduak 15 diciembre

- Kontu emateak bakarrik.

● Ez ohiko bilkura: abenduak 29 diciembre

* Faltan: Bego Navarro (EAJ), Puri Perez (EA) eta Koldo Mendez (PSE).

Onartutakoa

- Aurrekontu aldaketa: Eskolako patioaren izte proiektuaren bigaren fasearen esleipena burutzeko dirua aurreratzeta.



Hurrengo batzarrak:
Urtarrilak 12, otsailak 9,
martxoak 9 eta apirilak 13

PRESUPUESTOS 2011

5 millones y medio de euros,


El 22 de noviembre se aprobó en pleno extraordinario el presupuesto del 2011 que asciende a 5.495.530€. Se mantienen los criterios del año anterior en la elaboración de las cuentas públicas. No habrá incremento en las tasas e impuestos municipales. En el apartado de ingresos, se reduce por tanto la recaudación de los impuestos directos respecto al año anterior, pero las cuentas se nivelan gracias a la aportación de Udalkutxa que será mayor este año. En el apartado de gastos, se llevarán a cabo todas aquellas actividades y proyectos que se han presentado en las diferentes comisiones.

Estos son los gráficos de los ingresos y gastos del presupuesto municipal para el 2011



SKATE PISTA ETA ROKODROMOA ZABALIK

Urtarrilaren 23ra bitartean dago probatzeko aukera



2010 Argazki Lehiaketasaritua. Egilea: Peio Agirre.

Aste honetan zabaldu ditu atea Urzabal kaleko kirol azpiegitura berriak. Barruko skate eta rokodromoa egokitu ditu Udalak Berrizko Hiltegixe gaztetxearen atzealdean. Estalpeko kirol azpiegitura berria da eta erabiltzaileentzat skate pista eta eskalatzeko boulder gelaz gainera, aldagelak, dutxak, komuna, biltegia eta bulegoa ere baditu.

Urtarrilaren 23ra bitartean, berriztarrrek kirol azpiegitura berria bisitatu eta probatzeko aukera izango dute, astegunez arratsaldeko 5etatik 8etara eta zapatu-domeketan 09:00etatik 13:00etara.

Skate pista U itxurakoa da. Pinua eta urkia egurra erabili da berau egiteko. 140 zm altuera dauka eta patinatze azalera, berriz, 50 metro koadrokoa da. Luzeeran 8,4 metro eta zabaleran 5,75 metro ditu. Berrizburu kiroldegian eta aire librean dagoen bainuontzi itxurako pistaren osagarria da

barruko skate pista hori.


ROKODROMOA

Rokodromoari dago-kionez, 154 metro koadroko azalera egokitu da boulderra. Hiru gune egokitu dira, eskalada mailaren arabera. Hasiera maila, sarriera atletik gertu egokitu da eta, gehienez, 3 metroko altuera hartu dute panelek. Erdi mailan, panelen altuera metro erdian gehitu da eta eskalatzeko hormaren makurdura handitu egin da. Mailarik altue-
nean lokalaren altuera guztia aprobeztatu da (4,5 metro). Metro koa-

dro bakoitzeko, bestetik, 25 helduleku jarri dira. Boulderra 22mm-tako okumen laminatuz eraikita dago, baina hezetasunaren kontrako tratamenduaz aparte, silizea eta poliester materialeak ere erabili dira haitz naturalaren antzik handiena duen egitura lortzeko.

ERABILERA

Erabilera sistema gaur egun kiroldegiak daukan berdina izango du. Skate-rokodromoa erabli nahi duenak Urzabal zabaltzeko txartela eskuratu beharko du lehenengo, Berrizburu kiroldegian. Kiroldegiko tarifa berdina izango du eta 3,99 euroko fiantza ordaindu beharko da txartelagatik. Gero, erabilerari dagokionez, urteko kiroldegiko abonua dutenek 20 euroko prezioan urte osorako erabilera-baimena izango dute. Baina, nahi izan ezker, 10 sarbiderako bakarrik aktibatu daiteke txartela, 5 euroren truke. Berrizko Udala prest dago frontoia eta futbol zelaiarekin egiten duen antzera, hitzarmena sinatu eta kirol azpiegituraren gestioa herrian dauden patinatzaile eta eskalatzaileen esku uzteko. Hala ere, oraindik kudeaketa eta araudia zehazteko daude.




Rocódromo y pista de skate

Berriz ya tiene rocódromo y pista de skate. El Ayuntamiento ha abierto esta semana la nueva instalación deportiva cubierta en la calle Urzabal, detrás del gaztetxe Berrizko Hiltegixe. La nueva instalación cuenta con una U de skate con una superficie skatable de 50 m² y una altura de 140 cm. El rocódromo tiene una superficie de 154 m² y tiene tres zonas diferenciadas, según su grado de dificultad. El sistema de uso será el mismo que se utiliza actualmente en el Polideportivo: deberán previamente recoger la tarjeta y activarla para su uso. La gestión de la nueva instalación está aún por decidir. El ayuntamiento está elaborando la normativa de uso y gestión, con el propósito de cederlo a los grupos de skate y escalada, tal y como se viene gestionando el frontón y el campo de fútbol.

PLAZA BETE JENDE SANANTONIOETAN

Urtarrilaren 14tik 17ra plaza bete jende izango da San Antonio jaietan. Azken urteetako partehartzeari eusteko asmoarekin eratu du jai batzordeak egunotarako egitaraua. Ohiturazko ekitaldiak ez dira faltako: odoloste jana, nekazal eta artisautza azoka, dantzariak, umeentzat ikuskizunak, kontzertuak...



San Antonio jaiak bereziak izango dira aurten: batetik, eskualdeko barazki eta fruitu erakusketak 30 urte betezen dituelako eta, bestetik, azken urteetan galduta egon den nekazal olinpiadak berreskuratuko ditugulako.

Urtetik urtera baseritik bizi diren berriztarren edo baserriko generoa salgai duten berriztarren kopurua beherantza badoa ere, San Antonio jaietako hitzordura ez dute hutsik egiten geratzen direnek. Bakoitzak etxeko generoa ekarri eta amankomunean salgai jarriko dute. Gero, batutako dirua beste nekazal ustiapen batzuk ezagutzeko egin ohi duten bidaiarako gordeko dute. Azkeneko bidaiari Calahorrara egin zuten orain bi urte. Hurrengo bidaiari eta nora egingo duten erabakitzeak daukate. Aparteko ospakizunik ez dute egingo 30. ediziorako, baina beste urte batez etxeko generorik onena ekarriko dute Olakuetako probalekura.

Eta aurtengo jai egitarauko nobedadea nekazal olinpiaden berreskuratzea izan da. San Antonio egunean, arratsaldean, momentuz izena emanda dauden Berrizko hiru koadrilak lehiatuko dira. Txokor batzea, hiruko lasterketa, begiak itxita laguna karretilan eramatea, 15 kiloko zakua garraiatzea eta txapel jaurtiketa izango dira egin beharreko probak.

Se recupera la Olimpiada Rural

La olimpiada rural y la muestra hortofrutícola son dos de los actos destacados de la fiestas San Antonio que comienzan este viernes, 14 de enero. De hecho la muestra hortofrutícola cumple 30 años en 2011. Cada año el número de baserritarras descende en Berriz, pero los que siguen cuidando su huerta no dejan pasar la cita de los Sanantónios. Este año también traerán el mejor género de casa y lo pondrán a la venta. Una venta que se hace colectivamente, y que con el dinero recaudado realizan un viaje para conocer otras explotaciones y sistemas agrarios. El último viaje lo hicieron en 2008, a Calahorra.

Y la novedad del programa de fiestas es la recuperación de la Olimpiada rural. El día de San Antonio, a partir de las 19:00, competirán las tres cuadrillas de berriztarras inscritos en la olimpiada. Las pruebas que deberán hacer: recogida de mazorcas, carrera a tres, trasladar a una persona en carretilla con los ojos tapados, llevar un saco de 25 kilos y lanzamiento de txapela.

Jai egitaraua

URTARRILAK 14, OSTIRALA

19:30 "Sagardo Ibiltaria" Jaia eta trikitaliak. Ondoren odoloste jana.

20:00 Donien Atxa altxatzea.

21:30 Zeanuriko abesbatza Olakuetako plaza eta kaleetan. Zuzendaria, Mila Milikua.

URTARRILAK 15, ZAPATUA

17:30 Txan Magoa.

18:30 San Antonioko V. Pilota Txapelketaren finalak.

19:30 DJ Roberto Olakuetan plazan. 23:00etan bigarren saioa hasiko du.

URTARRILAK 16, DOMEKA

10:00 BTT martxa. Irteera Urtiaga plazan. Izen ematea doan.

11:00.- Eskualdeko XXX. Barazki eta Fruitu erakusketa probalekuan eta "Artisau txokoa" Olakuetan pilotalekuan.

12:00 Antonio Deunaren baselizan meza.

12:00 Bizkaiko bildots dastaketa.

13:00 Iremiñe dantza taldearen erakustaldia.

18:00 Disko Txiki Festa.

19:30 "Euskadi Tropikal" musikala kultur etxean. Sarrera: 2€.

URTARRILAK 17, ASTELEHENA

16:30 Barrakak doan izango dira arratsaldeko 18:30ak arte.

18:00 Hegoamerikako musika, Arantza eta Pantxo taldearekin.

19:00 Nekazal Olinpiada eta askaria. Sarrera: 1€ (txorizo ogitartekoa eta edaria doan).


URTARRILAK 24, ASTELEHENA

20:30 Donien Atxa kenduko da.

21:00 Olakuetarren afaria.

IDI PROBAK

Urtarrilaren 21etik 24ra, 55. Antonio Deunaren Sariketa Nagusia egingo da.



●●● Gabon jaiak amaitu dira

Argazkiko Olentzero eta Mari Domingi eta beranduago Hiru Errege Magoak opari askorekin etorri dira aurten ere Berrizera. Olentzerok eta Mari Domingik, bereziki, euren gutunak idatzi dizkietenei opariak banandu dituzte: eskola materiala, euskal jolaska, mp4-ak, afari-meriendak,... Aurten gutun lehiaketako irabazleak honako hauek izan dira: Amaia Uzuriaga, Iruri Altzerreka, Garoa Angiozar, Ainitze Antxia eta Euskaltegiko EGA taldekoak. Gabon jai hauetan, gaztelu puzgarrietan eta Wii nintendoarekin olgetako tartea ere egon da Berrizen.



LABURREAN

KONPOSTAJEA, OTSAILEAN

* **Konpostaje ikastaroa errepikatu egingo du Udalak otsailean, lehenengo edizioko arrakasta ikusita.** Ekimena Berriz Maite Dugulako ekimenarekin elkarlanean antolatuko du orain ere. 36 lagunek egin zuten ikastaroa joan zen urtean. Otsailean ere, bi talde eratzeko asmoa dago. Egun biko ikastaroa izango da eta alde teorikoa zein praktikoa jorratuko dira. Otsailaren 16an eta 17an egingo dira. Izena emateko epea zabalik dago, udaletxera deituta edo berrizmaitedugulako@gmail.com helbidean. Ikastaro horri esker, Berrizko familia batzuk etxeko hondakin organikoak eta ortuko edo lorategiko soberakinak auto-konpostatzen dute eta berriro ongarri moduan erabiltzeko aukera dute.

Olio bilketa berria

Bestetik, otsailerako etxeko olio bilketarako sistema berria jarriko da herrian. Hiru edukiontzi jarriko dira Berrizen eta erabilera zelakoa den azalduz etxeetara eskuorriak banatuko dira.

Ekimen biak hondakinen kudeaketarako Udalak diseinatuta daukan proiektu zabalagoan kokatzen dira. Hondakinen inguruko eztabaida herrian zabaltzea ere helburuetako bat da eta horretarako datozen hilabeteetan parte hartze foroak eratuko dira.



Foto: Comida de las personas mayores en fiestas de San Pedro

8 PERSONAS HAN SOLICITADO EL SERVICIO ON EIN!

* **El servicio de comida a domicilio** que pretende ofrecer el ayuntamiento a las personas mayores de 60 años ha tenido respuesta: 8 personas se han interesado por el servicio después del reparto de cartas y trípticos explicando el nuevo servicio. Ahora falta que el pleno apruebe la normativa elaborada para el servicio y posteriormente adjudicarla a una empresa especializada.

Bajo el nombre de On Ein!, el servicio consiste en la elaboración y entrega de la principal comida de cada día en el propio domicilio. También incluirá la elaboración de una dieta personalizada y el seguimiento de los hábitos alimenticios. Todo el servicio se gestionará desde los servicios sociales del Ayuntamiento y las personas solicitantes tendrán que presentar una necesidad contrastada por Bienestar Social. Una vez puesta en marcha, cualquier berriztarra puede solicitar el servicio en el Ayuntamiento.

PROTOCOLO PARA MEJORAR LA ATENCIÓN A MUJERES

* **Por primera vez se firmará un protocolo de coordinación interinstitucional en el Duranguesado** para la mejora en la atención a mujeres víctimas de violencia sexista, en el que el Ayuntamiento de Berriz ha participado en su elaboración, junto a los municipios de Abadiño, Durango y Elorrio. Este protocolo será una herramienta de trabajo para la mejora de la atención que se presta desde las instituciones a las víctimas de la violencia sexista y evitar así la revictimización de la mujer, y trabajar no solo en la atención y coordinación sino también desde la prevención. La firma del primer protocolo interinstitucional se hará a finales de este mes y en el próximo boletín "EingoxoNau!", del área de igualdad, se explicarán ampliamente sus principales puntos.



Argazkia: Anboto

SEXUALITATE TAILERRAK DARRAI

Joan zen ikasturtean Berrizko neska nerabe batzuek eureri bereziki zuzendutako sexualitate tailerrean parte hartu zuten. Tailerrean landutakoekin gida bat eratu dute. Sexualitatea zelan bizi duten eta zeintzu arrisku dauden jaso dute, besteak beste. Ikasturte berriari begira, sexualitate tailerrarekin jarraituko dute. Izena emateko: berdintasuna@berriz.org.

LEZAMARA BISITAN



Koikilik joan zen ikasturtean entrenamenduetan euskara erabiltzeko emandako ikastaroaren harira, Udalak Lezamara bisita antolatu du.

Taldearen entrenamendua ikusi eta gero Athletic-en instalazioak barrutik ezagutu zituzten jokalarien eskutik.

IRUDITERIA BERRIA

Udala hasi da eraikin publikoetan iruditegi berria jartzen.

Kirol azpiegitura nagusietan, eta udalarenak diren eraikinetan, izendegia egokitu dute.



SAHARAKO KARABA

* **Urtarrilaren 22ra** arte luzatuko da Sahararen aldeko elikadura bilketa. Arroza, lekaleak, pasta, azukrea, atuna, sardinak eta konpresak batuko dira beste urte batez. Herriko saltokietan eta ikastetxeetan jasoko dira poltsak.

LANGILE BERRIAK

* **Udalaren lan-eskaintza** publikoaren prozesua amaituta, urtarrilaren 1etik langile berriak ditu. Igerileku-ko soroslea, administrazio laguntzailea, garbitzaileak, peoiak eta zerbitzu anitzetarako langileak amaitu dute lan-eskaintza publikoa. Gazteria eta Berdintasun Teknikaria dagokion lan-eskaintza da burutzea falta den bakarra.

TOPONIMIA MAPA

* **Berrizko leku-izenak** zehaztu, erakusketan ipini eta gero, zuzenketa fasean dago lana. Martxora bitartean egingo dira zuzenketa lanak eta ekarpen berrietarako tarteak ere izango da. Gero, Udalak herriko toponimia mapa argitaratu nahi du udarako eta etxez etxe banatzeko asmoa dauka. Proiektuarekin amaitzeko, toponimia lan guztia sarean jarri eta auzoz auzoko liburukiak argitaratzeko proposamena aztertzeke dago oraindik.

APARKALEKU BERRIA

* Udaletxe zaharraren alboan **aparkaleku berria** egokitu da kotxe eta motorrentzat, inguruan izaten den aparkaleku arazoari irtenbidea emateko.



ZIKLOKROSA

* **Urtarrilaren 15ean**, ziklokros proba egingo da Berrizen 20 urte eta gero. Berriz Ere Bizikletari elkarteak antolatuko du Udalaren laguntzarekin. Belodromoa eta futbol zelaiaren inguruan egingo dira probak goizeko 10etan hasita eta kategoria guztietarako txirindularien parte hartzea izango da.

AIREAREN KALITATEA

* **Durangaldeko aire kalitatea** neurtzeko azterketa egin du Azterlan-ek Tokiko Agenda 21 ekimenaren barruan. Berrizi dagokionez, partikula-material mailetan ohikoa baino maila altuagoa neurtu da. Azterketan, trafikoa dela kutsadura gehien eragiten duen faktorea ondorioztatu da eta neurgailuak A-8 autopistatik gertu egoteak partikula-materialen maila ohikoa baino altuagoa izatea ekarri duela azpimarratu dute. Berrizi dagokionez, kezkatzekoa ez bada ere berdea, horia eta laranja koloretan neurtuta kolore horikoa da balorazioa.

BERRIZKO AGENDA

URTARRILAK 14

18:00 Ume antzerkia: "Azken portua"
Deja Bu taldea. Kultur etxean.

URTARRILAK 21

22:00 Musika: Yakuzi. Kultur etxean.



URTARRILAK 22

Epea amaitu: Sahararen aldeko
elikadura bilketa amaituko da.

URTARRILAK 28

18:00 Ume antzerkia: "Ogro txikia"
Gorakada. Kultur etxean.


URTARRILAK 29

20:00 Musika: Iñaki Salvador:
"Lilurarik ez. Mikel laboarekin
solasean". Kultur etxean.

10:00-19:00 Aukeren merkatua:
Berrizko merkatarien elkarteak
antolatuta. Olakueta frontoian.

OTSAILAK 16-17

Konpostaje
ikastaroa.
Izena-ematea
zabalik.



OTSAILAK 18

18:00
Ikuskizun
multimedia:
"Anaki" Logela
multimedia.
Kultur etxean.

OTSAILAK 26

20:00 Antzerkia: "Errautsak" Arte
Drama eta Le Petit Theatre du Pain.
Kultur etxean.

OTSAILAK 27

Txitxiburduntzi Eguna

MARTXOAK 3

Eguen Zuri Eguna

MARTXOAK 4-5

Berrizko ihauteriak (egitaraua zehazteko
dago)



MARTXOAK 12

20:00 Antzerkia: "Las gallegas" Lolita
Corina Cia. Kultur etxean.

MARTXOAK 19

20:00 Antzerkia: "Espazio hutsak"
Higa taldea. Kultur etxean, 20:00etan.

MARTXOAK 26

20:00 Antzerkia: "Tengamos el sexo
en paz" Erne2. Kultur etxean.

APIRILAK 1

20:00 Musika: Udaberriko abesbatzen
kontzertuak: Haladzipo (Barakaldo),
Jesus Aranbarri (Bilbo) eta Arraizpe
(Bilbo). Parrokian.

APIRILAK 2

20:00 Antzerkia: "Larria, Kutsakorra
eta Mendebaldekoa" Tartean taldea.
Kultur etxean.

APIRILAK 8

18:00 Ume antzerkia: "Ipuinaren
itzalpean" Txalo. Kultur etxean.

APIRILAK 13

Korrika 17 Berriztik pasatuko da
goizaldean.



APIRILAK 15

20:00 Munduko Ipuin Kontalariak.
Kultur Etxean, 20:00etan.

APIRILAK 16

20:00 Antzerkia: "Baginaren
bakarrizketak" Txalo. Kultur etxean.

ERAKUSKETAK

Urteko lehen hiruhilebetekoak egingo
diren erakusketak honako hauek izango
dira. Datak zehazteko daude oraindik:

"Euskal jazz" Julen Uriberen **argazkiak**

Zeramika erakusketa Eibarko Raku

Peio Agirrereren **argazkiak**

12. Kaleko Pintura Lehiaketako lanak

* GOGOAN HARTU

* **Berrizko
Gaztelekuaren
ordutegia**

Barikuetan
16:30-20:30.

Zapatu eta domeketan
11:00-14:00 eta 16:30.



BERRIZKO TELEFONOAK

UDALETXEA94 682 40 36
OSASUN ETXEA94 623 61 00
KIROLDEGIA94 682 62 44
KULTUR ETXEA94 682 78 60

ERRETIRATUEN ETXEA94 682 48 66
LEARRETA-MARKINA94 682 43 44
DBH Institutua94 682 49 62
HAURRESKOLA94 682 63 39